

# Tutuaren “Urtantea” Eliodoro de la Torre (1889-1946). Belaunaldi baten eredu

*Asier Madarieta Juaristi jauna*

Artikuluak, Eliodoro de la Torre Larrinaga, Barakaldon jaio zen (1889) eta Bilbon 1912 urtez geroztik. 1936ko urrian José Antonio Agirreren Lendakartzapean osatutako Euzkadiko Jaurlaritzaren lehenengo Ogasun Zaingoko burukidea izan zenaren biografia batzen da. Orrialdeetan zehar, ekonomia arloan oso garrantzitsua izan zen pertsonaiaren berri ematen da. Langile arazoetaz eta kooperatibismoaz kezkatu zen. Berdin ere, orain arte beharbada behar zen bezala baloratuta izan ez diren bere iritzi eta garrantzi politikoaren berri ere ematen da.

Giltza hitzak: Eliodoro de la Torre, biografia, PNV, kooperatibismoa, sindikalismoa, langileak

## **Eliodoro de la Torre (1889-1946). Arquetipo de una generación**

El artículo recoge la biografía de Eliodoro de la Torre Larrinaga que nació en Baracaldo (1889) y que desde 1912 vivió en Bilbao. Consejero de Hacienda del Gobierno Vasco creado en octubre de 1936 bajo la presidencia de José Antonio Agirre. A lo largo de las páginas se repasa la figura de una personalidad clave en el aspecto económico, el sindicalismo obrero y el cooperativismo. También se otorga especial importancia a la dimensión política del personaje, muchas veces insuficientemente valorada.

Palabras clave: Eliodoro de la Torre, biografía, PNV, cooperativismo, sindicalismo, obrero

## **Eliodoro de la Torre (1889-1946). Archetype of a generation**

This paper covers the biography of Eliodoro de la Torre Larrinaga who was born in Baracaldo in 1889 and lived in Bilbao from 1912 onwards. He was Councillor of the Treasury in the Basque government created in October 1936 under the presidency of José Antonio Agirre. The paper considers the figure of a personality who played a key role in the economic sphere, workers' trade unionism and cooperativism. Special importance is also given to the political dimension of this personage, which has often been insufficiently appreciated.

Key words: Eliodoro de la Torre, Biography, PNV, Cooperativism, Trade Unionism, Worker

## 0. Sarrera

1930eko hamarkadan euskal abertzaletasunak ezagutuko duen garapena, José Antonio Agirrek gidatutako belaunaldi bati egotzi zaio. Manuel Irujo, Jesús María Leizaola, Alberto Onaindia, eta beste hainbat pertsonai dira beti aipatzen diranak. Baina hauekin batera izan ziren abertzaletasunaren burdiari eutsi zioten beste hainbat abertzale. Batez ere azpimarragarria da klase ertainetako abertzale euskaldunek abertzaletasunaren ideien garapenean izan zuten garrantzia, batez ere nagusi zen EAJ alderdiaren barruan.

Bere sorreratik gizarteko klase ezberdinak batzen zituen alderdia izanik, erabateko garrantzia izan zuten klase ertainak EAJren garapenean. Bere historia guztian inportantea izanda hauen ekarpena, oraindik garrantzitsuagoak bilakatu ziren Espainian Errepublikak zabaltzen zen unean, abade eta jeltzaleek bat egin zutenean Gizarte Irakasbidea eta Estatutuaren aldeko aldarrikapenean.

Elizatik bultzatutako ideia berriek, klase ertainen garapena zekarren. Hau hobeto ulertzeko Erramun Ertze apaizaren hitzak hartuko ditugu<sup>1</sup>. Ertzeren ustez, klase ertzainak ziren “demokraziaren eragile edo motoreak, giza eskubi-deen iturria, garapen ekonomikoaren energia eta gizartearen egonkortasunaren arazoia. Zeinahi ikuspegitatik, modernotasunaren ikur eta zeinu dira klase ertainak, totalitarismo politikoen eta muturreko jarrera sozialen garaitzaren ordezkari diren heinean. Faxismoak eta komunismoa gaitz politikoak diren neurri berean, pobrezia eta aberastasuna gaitz sozialak dira. Gaixotasun soziopolitiko horiei bukaera emango bazaie ezinbestekoa da terapia jakin bat aplikatzea, klase ertainak indartzea, alegia”

EAJren helburuetariko bat, ekonomia eta gizarte mailan, klase ertainen nagusitzea izan zen. 30eko hamarkada honetan nabari da, aurreko hamarkadan hasitako prozesua EAJren barnean, hau da, klase ertainetako pertsonaien nagusitasuna, ia alderdi politikoko agintari gehienak eta abertzaletasunaren munduko agintari gehienak balio dutelarik adibide gisa.

Eliodoro de la Torre azken hauen artean koka dezakegu. Etxe apaleko semea, ertaineko ikasketak egin eta XX. mendeko lehenengo urteetan Bilboko garapen industrialak emandako ahalmenetan oinarriturik, garrantzi ikaragarria izango zuen pertsonaia, Euzkadiko Jaurlaritza osatu zenean ogasun sailburu izatera heldu arte, hurrengo hamar urteetan bere esku izango zirelarik, euskaldun askoren etorkizun ekonomikoa eta politikoa. Beste batzuk agiriko lana, “iturri” lana, egin zezaten, “ur tutua”ren lana eginez, kontsumo kooperatiben mundutik, sindikalgintzatik, egunkarietatik, mitinetan, batzarretan euskal aber-

<sup>1</sup> X. APAOLAZA eta J.A. ASCUNCE: “Ramón de Ertze Garamendi: La marcha del mundo” Saturraran Argitaletxea. Donostia, 2001 liburuan topa ditzakegu. Libururen hitzaurrea X. APAOLAZAK eta J. A. ASCUNCEK idatzi dute eta Erramun Ertze berari buruz zein Kristau Irakasbidea Euskadin ezagutzeko era laburra eta aproposa da.

tzaletasunarekiko klase ertainek eta bajuak zeukaten atxikimendua bultzatu eta indartu zuten pertsonai ahaztuen ordezkariak hartu dezakegu Eliodoro de la Torre.

Hurrengo lerroetan Eliodoro de la Torreren bizitzaren laburpena erakusten dugu, bera bezalako pertsonaien garrantzia aldarrikatuz, euskal abertzaletasunaren historian klase ertainek izan duten garrantzia azpimarratzeko gogoz. Hainbat eta hainbat "ur tanta" eman zituzten "tutuak".

## 1. "Ur tutua"

Eliodoro de la Torre Larrinaga, Barakaldon jaio zen 1889ko maiatzaren 6an<sup>2</sup>. Leonardo de la Torre Urrutikoetxea eta Asunción Larrinagaren bigarren eta azken semea zen.<sup>3</sup>

Bere gazte denborak oso ilunak dira, bere bizitza osoari buruzko argibidea bezala eta nahiz eta bere gurasoak Begoñakoa eta Durangokoak izan, ez daki-gu zerk eraman zituen biak Barakaldora. Badirudi, eta honetan aztertutako iturri ezberdinak bat datoz, bere aita langilea zela eta De la Torretarren etxea ez zela batere aberatsa. Anai bi ziren: bata Segismundo, nagusia, eta Eliodoro.

Barakaldon lehenengo urteak eman eta Eliodorok merkataritzako ikasketak amaitu zituen. Ikasketak amaitu eta oposaketak prestatu zituen banketxeko langile bilakatzeko. Oposaketak gainditu eta banketxeko lanetan aritu zen 1907tik 1922 bitartean.<sup>4</sup> Urte hauetan euskal banketxeetarako zein Ingalaterrako banketxeetarako egin zuen lan,<sup>5</sup> banka munduko langile goi funtzionarioa izatera heldu zelarik. 1922an meategi enpresa bateko gerente izendatu zuten. Azkenik aipatu, 1936ra arte, Sociedad Minera de Villaodrid enpresako gerentea izan zela.

Eliodoro ordurako Bilbon bizi zen. 1912ko urtarrilaren 20an ezkondu zen Fermina Gerediagarekin eta ordutik aurrera, harreman estuak izan zituen Mercedes Gerediaga koinata eta honen senarra José María Iturraterekin eta hauen seme-alabekin batez ere, ilobekin hain zuzen ere.

<sup>2</sup> Eliodoro de la Torreri buruzko agiri eta dokumentu ofizialak Abertzaletasunaren Agiritegiko GE-265-4 (aurrerantzean A.A.) karpetan agertu zaizkit. Pertsonaira hurbiltzeko beste liburu eta artikulua batzuk: EUSKO JAURLARITZA: "Eliodoro de la Torre. Primer Consejero de hacienda del Gobierno Vasco" Vitoria-Gasteiz, 1984. Aldizkarietan idatzitako artikulua: "Muga" 41. zkia. 85eko martxoa. (66. orri) "Euzkadī", 136 zkia. 1979ko uztailearen 12; "Euzkadī" 263. zkia, 1986ko urriaren 9an. (28. orri.) Dana dala argitu beharra dago, laburrak izateaz gain, nahiko akats agertzen direla aipatutako biografia hauetan.

<sup>3</sup> Venezuelako Gobernuak etorkinentzat luzatzen zuen nortasun agiria. 1940ko uztailearen 6an Eliodoro de la Torreri emandako agiria. (A.A GE-265-4).

<sup>4</sup> FERNANDO DE MEER: "El PNV ante la guerra de España. (1936-1937)" EUNSA, Pamplona, 1992. (182. orri.) eta "Euzkadī", 136 zkia. 1979ko uztailearen 12.

<sup>5</sup> EUSKO JAURLARITZA: "Eliodoro de la Torre..." liburuan (19. orri) eta Eliodoro de la Torre, Agustín Alberrori 1943ko apirilaren 12an idatzitako eskutitza. (A.A. 1-114-2)

Ezin dugu gauza handirik esan Eliodororen izaerari buruz. Badirudi pertsona ixila zela. Jesús María Leizaolak, Eliodoro zendu eta gero “*Euzko Deya*”n idatzitako artikuluan, Eliodoro ez zela idazle ezta mitinlaria esaten du. Ekintzetan luzea eta hitzetan laburra esaten dute beste batzuek.<sup>6</sup> Luki Aldazabal, Euzkadiko Jaurilaritzako Ogasun Zaingoko langilea izandakoaren iritziz, EAJren eta Gobernuaren barruan beste batzuk “iturriak” baziren (agerpen publikoak eta adierazpenak eta mitinak ematen zituztenak), Eliodoro beharrezko “ur-tutua” zen.<sup>7</sup> Leizaolaren hitzetan Eliodoro de la Torre “aritzen zen” horietakoa omen zen. Negozioetan-eta trebetutako gizona eta Gerra Zibilean berak erabilitako zentzu praktikoa gorai patzen zuen. Bere esanetan “Ajuriagerra bezalakoa zen”; aginduak-eta ematerakoan behar ziren puntu eta koma guztiak ipintzen zuen horietarikoa. Gizon lasaia eta baikorra zen. Ironiarako jaioa. Berak idatzitako eskutitzak, batez ere bere lagunei zuzendutakoak, adibidez beteta daude.

Langile sutsua izateaz aparte, Manuel Irujoren ahoan ipintzen den deskripzioan, Eliodoro zakarra zen.<sup>8</sup> Bere etsaientzat gizon maltzurra, azpi jokoetarako trebea. Dakigunez Juan Negrinek, Espainiako Gobernuko Ogasun Ministroa eta gero Gobernuburu izango zenak, gerra garaian ez zuen berarekin traturik nahi izan. Manu Robles Arangiz ELAko Lehendakariak berak ere ELAren barnean, 1936tik 1945era, izandako arazoan arduratzen Eliodorori egozten zizkion. Eliodorok berak ere, Jaurilaritzan egindako kudeaketari buruz, gauza itsusiak egin zituela onartzen zuen baina beti ere EAJk aginduta eta alderdi honen alde.<sup>9</sup>

Diru kontuetan, zintzotasunaren froga asko eman zituen. Beharbada adierazgarriena txirotasunean hil zela, bere alarguna bera ere, oso egoera ekonomiko txarrean utziz.

Bihotz handiko gizona zen eta momenturik txarretan ere adibide ugariak eman zituen. Behin baino gehiagotan galdetu zion bere buruari zer egin behar zuten diru laguntza eskasak edo diru laguntzarik kobratzen ez zutenak.<sup>10</sup> 1942ko urtearen amaieran, Marseilla aldetik joaterakoan, bere azken pentsamendua ere gorriak ikusi behar zituzten euskal erbesteratuentzat ziren.<sup>11</sup>

Bere izaerara era bitxian hurbiltzeko 1939ko azken hilabeteetan Angelun lan egiten zuten batzuk Eliodorok idatzitako eskutitz bat luzatu zioten grafologo

<sup>6</sup> “*Euzkadi*” aldizkaria 122. zkia.

<sup>7</sup> Luki Aldazabali egindako elkarrizketa: Bilbo 02/01/21

<sup>8</sup> Eliodoro de la Torrek, A. Alborri 1941eko otsailaren 1ean. (A.A. 1-114-2)

<sup>9</sup> Eliodoro de la Torrek, “Casimiro” ezizena erabiliz, Eugenio Goienetxeri, datarik gabe bidalitako eskutitza. A.A. 1-114-2.

<sup>10</sup> Eliodoro de la Torrek, Telesforo Monzoni 1942ko azaroaren 17an idatzitako eskutitza. A.A. S-760-4.

<sup>11</sup> Eliodoro de la Torrek 1942ko azaroaren 19an Agustín Alborri idatzitako posta txartela. A.A. 1-114-2.

bati. Honen iritiz, Eliodoro pertsona zaila eta korapilotsua zen. Nortasun bikoitza zuen. Alde batetik bihotz handiko gizona, esku zabala, baina bestetik burugorria, zorrotza, sendoa, txukuna eta ekonomikoa. Eliodoro ez zetorren bat grafologoak edo igarleak emandako iritziekin. Dena den honi buruz iritzia ematerakoan ironia puntu bat somatzen zitzaion eta Angeluko lagunei igarlearen "ikerketak" areagotu zitzaion eskatzen zien.

Ezagutu zutenen iritziaren arabera, Eliodororen meritua ez zegoen horrenbeste berak zuen jakituran, baizik eta, jakinik bere mugak zeintzuk ziren, oso ondo aukeratu zituela bere laguntzaileak, lan talde modernoa eta ondo egitura-tua lorturik.<sup>12</sup>

Ogasun zaingoko burukidea izateaz aparte, garrantzi handia izan zuen, gobernuak eta EAJk berak hartutako erabakietan eta ez bakarrik arlo ekonomikoan. Honen erakusgarri, artikulu guzti hau bada ere, adibide txiki bezala aipa dezagun 1945eko urtarrilaren 5ean Iñaki Azpiazu apaizak Eliodorori bidalitako eskutitza. Bertan, apaizak, Frantziako gerdarmeeek egindako txostena ikusi zuela esaten zion. Txostenean euskaldunei buruzko argibide oso zehatza agertzen zela esanez. Beraz, apaizaren ustetan, Euskadiko ordezkariatzako baten batek ematen zien argibidea poliziei. Txosten honetan Jesús María Leizaola, titularra zen bitartean, Eliodoro zela benetan mugitzen zena, zioten. Eliodoro zela, emateko pausuak zeintzuk izan behar ziren esaten zuenak.<sup>13</sup>

## 2. Perosiren mezak<sup>14</sup>

### A) GIZARTE-AUZIA

Sar gaitezen orain Eliodoro de la Torreren ideia sozialak aztertzeraz, gure ustez, oso garrantzitsuak baitira pertsonaiaren ibilbidea eta jokaera ulertzeko.

Eliodoro de la Torre "Giza-auzia" izenarekin ezagutu ziren ideien defendatzaile sutsua zen. Katolikotasuna eta gizakiaren bizimodua hobetzea ziren bere biziko ardatz nagusiak. Beraz ildo bi hauek batzen zuen "gizarte-auzia"n mugitzea ez da harritzekoa. Gure ustez ez da oraindik behar bezala aztertu Elizatik bultzatutako ideia hauek izan zuten eragina, lehenengo abertzaleengan eta

<sup>12</sup> JOSU CHUECA eta LUIS FERNANDEZ "Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian" Euskaldunon Egunkaria. Lasarte-Oria, 1997. 60. orri. ; eta "Euzkadi" 122. zkia. 1979ko apirilaren 5. (16 eta 17. orri).

<sup>13</sup> Iñaki Azpiazuk Eliodoro de la Torreri 1945eko urtarrilaren 5ean idatzitako eskutitza. (A.A. GE-614-1)

<sup>14</sup> Lorenzo Perosi, musikalaria zen. Tortonan 1872an jaio eta Erroman 1956an hil zen. Batez ere ospe handikoak dira berak konposatutako mezak. Bai 1930eko hamarkadan zein hurrengo urteetan abertzaleen artean, ez zegoen behar zen moduko jaialdi edo ospakizunik, Perosiren mezarik eramaten ez zuenik.

gizartean, eta gero abertzaleak agintean izan zirenean, nahiz eta oso epe laburra izan, gobernutik eramandako politikengan eta hartutako erabakiengan.

Leon XIII.a eta Pio XI.a Aita santuek zabaldutako irakasbideko ideietan aurki dezakegu ideia hauen sorrera. “Rerum Novarum” (1891) eta “Quadragesimo anno” (1931) entzikliken bidez Eliza Katolikoak industrializazioaren eraginez gizartean sortutako txirokeria eta bizi baldintzen okerragotzea zuzendu nahi zuen. Batez ere arazo honen eraginez sozialismoa gero eta gehiago hedatzen hasia zelako biztanlegoan eta, batez ere, langileen artean. Beraz, baldintzen okerragotze eta sozialismoaren hedapenari aurre egiteko, kapitalismo gogorren eta sozialismo hutsaren erdian kokatzen zen irakasbidea zabaldu zuen Erromako Elizak: Kristau Gizarte Irakasbide izenarekin ezagutua izan zen irakasbidea.<sup>15</sup>

Mugimendu berriaren gidari bezala Gasteizko apaizgaitegia finkatu zen. Bertako abade guztiak abertzaleak ez baziren ere, nahiz eta horren salaketak izan, katolikotasunak bizi zituen arriskuak ikusiz eta bestalde euskaltzaletasunaz ikututa zeudela, ideia bien arteko lotura lantzen hasi ziren. Lotura horrek, momentuz izen bat zeukan: Euskal Estatutua. Apaiz batzuk, autonomi estatutua ikusten zuten Euskal Herriak antzinatek izan zituen ohitura erlijiosoa eta antzinako ezaugarri moralak berreskurtatzeko aukera bezala.<sup>16</sup>

Eta abadeek politikagintzan Estatutuaren aldeko kanpaina eta lana egiten hasi ziren. Beraz, zergatik ez batu Estatutua, hau da, Euskadin Gobernu sortuz Gobernu horri hainbat eskubide itzultzen zizkion tresna, eta tresna hori arrotzak ziren ideia sozialista eta laikoak erabat kentzeko eta dezagertarazteko erabili. Erlijioaren eta politikaren arteko lotura eta etekinak denon bistan zeuden.

EAJ saiatu zen lehenengo unetik Kristau Irakasbidearen neurriak eta asmoak Euskal Estatutuan jartzen, batez ere lanari eta jabeagoari buruzko atalean. José Antonio Agirrek berak esaten zuenez, azken baten ere, Euskal Estatutuan arlo sozialari buruz jarritako edukin guztia, León XIII eta Pio XI.ak emandako dok-

<sup>15</sup> “para descubrir, tras un diligente examen del moderno régimen económico y del socialismo, la raíz de la presente perturbación social, y mostrar al mismo tiempo el único camino de salvadora restauración, o sea la reforma cristiana de las costumbres.” (“Carta encíclica de Pio XI sobre la restauración del orden social”. Tipografía Políglota Vaticana. 1931. 7. orri.)

<sup>16</sup> “No en vano, una buena parte del clero vasco veía en el ideal autonómico la soñada recuperación de la tradición religiosa y de los auténticos valores morales de los vascos”. RIVERA, DE LA FUENTE: “Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta” Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2000. (28-29. orri.). Horri bereko 26. oharrean irakur dezakegu aurrean esandakoaren froga: “analizando los artículos del libro homenaje, [Eduardo Eskarzagaren omenez, bere lehen meza esan zuenetik hogeitabostgarren urteurrena ospatzen zenean Gasteizko Apaizgaitegiko irakasle eta ikasleek idatzitako liburuari buruz ari da] Joaquín Perea concluye que “la lucha en favor del Estatuto de autonomía era una lucha de recuperación de la propia alma del pueblo, de su peculiaridad social y política. En estos esfuerzos se sentía también implicado una buena parte del clero que los veía unidos a la recuperación de su tradición religiosa y sus auténticos valores morales”.

trinaren ezarpen lasaia eta gizatiarra baino ez zen.<sup>17</sup> Baina ez bakarrik Estatu-tuan. 1935eko otsailaren lehenengo egunetan, EAJk Madrilén zituen ordezkariak Kristau Irakasbidean oinarritutako proposamena aurkeztu zuten Espainiako Gortean. Lege proposamen hau soldatari buruz, sendien diru sarrerei buruz eta langileek, enpresek izandako etekinetatik atera behar zuten onurari buruz zen. Esan dugunez Kristau Irakasbidean oinarrituta zegoen legea eta hau argi geratzen zen hitzaurrean, bertan Pío XI.ak emandako entziklikako esaldiak zuzenean aipatzen zirenean.<sup>18</sup>

Beraz, argi geratzen da gure ustez, euskal abertzaleengan Kristau Irakasbi-deak izandako eragina eta horretan Eliodoro ere ez zen kanpoan geratuko hurrengo lerroetan ikusiko dugun bezala.

## B) KONTSUMO KOOPERATIBAK: DEUSTUKO KONTSUMO KOOPERATIBA.

Kontsumo kooperatibak izan ziren euskal abertzaletasunak, goian azaltzen genituen Kristau Irakasbideko ideiak gauzatzeko egin zuen lehenengoetariko saiakera. Eliodoro de la Torreren kasuan, ideien gauzatze hori, Deustuko Kontsumo Kooperatiban eraman zuen aurrera.

Egia esan, garai honetan kontsumo kooperatibak eta antzeko erakundeak oso ezagunak ziren. Zergatia ezagutzeko, lehen aipatutako León XIII.ak eta Pío XI.ak zabalduetako Kristau Irakasbideko ideietan aurki dezakegu. Irakasbide honen oinarrian, enpresarioek zituzten etekinak zalantzan jarri gabe, langileen artean etekin horien banatzearen alde agertzen zen Eliza. Bestalde, eta gizarteko bizitza baldintzak hobetu nahian, premiazkoak ziren beharizenei aurre egiteko zerbitzuak ezartzen ziren: janaria, etxebizitza, arropa eta osasuna hain zuzen ere.

Helburu honekin sortu ziren hainbat herritan kontsumo kooperatibak eta Deusto aldea ez zen horretan ezberdina izan.

Langileen artean osasun zerbitzuak merketzeko, janarien salneurriak hobetzeko eta etxebizitzak bermatzeko sortu zen Deustuko Kontsumo Kooperatiba 1917ko otsailaren 26an.<sup>19</sup> Sortzaileen artean Eliodoro de la Torre bera aurkitzen zen.

<sup>17</sup> JOSÉ ANTONIO AGIRRE: "Entre la libertad y la revolución. 1930-1935" GEU argitaletxea. Bilbao, 1976. 2. argitalpena (211.orrialdea eta hurrengoak)

<sup>18</sup> "Participación de los obreros en los beneficios de las Empresas, salario tipo, subsidio familiar y accionariado obrero". Propositiones presentadas por la Minoría Nacionalista a las Cortes. (Índice de las intervenciones de los diputados nacionalistas vascos en las Cortes Constituyentes de 1931 a 1933 y en las ordinarias de 1933 a 1936. Editorial Vasca, Bilbao, 1936. 31. orri.).

<sup>19</sup> Reglamento de la Cooperativa de Consumo de Deusto. Capítulo I "De la sociedad y su objeto". (3 eta 4. orri.). Jose Ausín en inprenta. Bilbao, 1923.

Bereziki aipatutakoak aparte, Deustuko Kontsumo Kooperatibari buruzko argibide orokorra LEYRE ARRIETA, MIREN BARANDIARAN, ALAZNE MUJICA ETA JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZek idatzitako: "El movimiento cooperativo en Euskadi. 1884-1936" Sabino Arana Elkargoa. Bilbo, 1998.

Baina Deustuko Kontsumo Kooperatibak egingo zuen lan ikusgarriena gizarte arlokoa izan zen. Arlo honetan aitzindaria izan zen Deustuko Kooperatiba. Saldutako gauzei beti ere atxikitzen zitzaizkien zergak, apur bat garestia-goak jarritz, etekinekin gizarte arloko ekintzak egiteko gauzatzen ziren.

1933rako osasuneko zerbitzuak jarri ziren martxan kooperatiban. Lan baldintzak eta bizitzako baldintzen okerragotzea ikusita, Eliodoro de la Torrek, langileek zeukatzen arazo nagusia osasunarena zela ikusi zuen. Krisialdi egoerak, grebak, eta abar, soldata, asteko 30 edo 35 pezetara jaitsi zituen, langileak astean lau egun lanean zeudela. Honekin senarra, emaztea eta hiruzpalau ume bizi behar ziren, eta askotan zati handi bat botikak erostean zihoan. Beraz, arazo hau konpontzera bideratu zituen bere lanak Deustuko Kooperatibak. Deustu hiru gunetan banatuz, gune bakoitzeko osagilea, komadrona eta erizain bi izendatu ziren. 1933ko uztailaren 23an, elkarlanaren egunarekin bat eginez, zabaldu ziren Kooperatibako egoitza nagusian klinika berriko aretoak. Adituen kontsultak ez ezik, ebakuntzak egiteko aretoa, botika zerbitzua, eta etxean kontsultak egiteko zerbitzuak eskaintzen zuen egoitza berriak. Honetaz gain, gaixoentzako eta haurdun egondako emakumeentzat diru laguntzak ere ematen ari ziren. Zerbitzu hauek Kooperatibak izandako etekinekin, bazkideek emandako laguntzekin eta Lan Ministeritzak emandako laguntzekin ordaintzen ziren.<sup>20</sup>

Deustuko Kooperatibak izandako arrakasta, batez ere osasun arloan, Euskadi guztira zabaldu behar zen osasun zerbitzu baten zirriborroa egitera bultzatu zituen abertzaleak. Zirriborro hau oso aurreratuta zegoen Espainiako Gerra Zibila hasi zenerako.

Deustuko Kooperatibaz aparte beste kooperatiba batzuen eraketan ere garrantzitsua izan zen Eliodororen partehartzea. Euskal Kooperatiben Federakuntza sortzea bazen bere helburua, azkenik Bizkaia eta Gipuzkoako Kontsumo Kooperatiben Federakuntza sortu zen, Eliodorok bultzatuta, eta arlo honetan berak egindako lana oroitzuz, bera izendatu zuten erakunde berri honetako Ohorezko Lehendakaria.<sup>21</sup>

---

<sup>20</sup> Eliodoro de la Torreri 1933ko irailaren 1ean "Cooperatismo" aldizkarian egindako elkarrizketa.

<sup>21</sup> Euzkadi. Centro Vasco de Caracas. IV. Urtea, 32 zkia. 1946ko otsaila eta Eliodorok ezezagun bati ("Distinguido compatriota"), 1945eko azaroaren 6an bidalitako eskutitza. Azken hau, Iñaki Anasagastik utzitako fotokopia.



### 3. "Acort eta aparte"<sup>22</sup>

#### A) SOLIDARIDAD DE EMPLEADOS VASCOS (SEV)

Abertzaletasunaren munduan garrantzi handia izango zuten beste agintari batzuk bezala, Eliodoro de la Torrek SEV (Solidaridad de Empleados Vascos) sindikatua sortu zuen.

Leizaolaren hitzak jarraituz badirudi SEV sindikatua sortzeko asmoa ELAko kideengandik zetorrela, Eliodoro barne.<sup>23</sup> Kristau Irakasbideko ideiak abertzaletasun ideiekin batera fabriketatik kanpo lan egiten zuten langileei helarazteko, eratu zuten Eliodorok eta beste abertzale batzuk Sindicato de Empleados Vascos sindikatua, erakunde honen lehendakaria izatera heldu zelarik.<sup>24</sup>

SEV eta ELA sindikatua, 1933an Gasteizen ospatu zen Batzar Orokorrean bateratu ziren, ELA-STV sindikatua izango zena sortuz<sup>25</sup>. 1933. urte honetan 13 udal erakundetan antolatutako 2.000tik gora bazkide zituen SEV sindikatuak.<sup>26</sup> Juan Pablo Fusiren esanetan ELArekin egindako batuketaren ondorioz, sindikatu honetara gehitu ziren SEVeko kideek oso garrantzi handia izan zuten Errepublikara garaian sindikatuaren ibilbidean.<sup>27</sup>

Era berean Eliodoro prentsan idazten hasi zen "Urtantea" ezizena erabiliz eta gehien bat gizarte gaiak jorratuz.

#### B) ELA

Goian aipatu bezala, Eliodoro de la Torre aspalditik ikusten dugu ELAren barruan lanean. Ez dakigu zehatz zein izan zen bazkidetza data baina 1929an Eibarren egindako kongresuan bera izan zen hizlarietariko bat.

<sup>22</sup> Izenburua, "Donosti" ELAkideak Ascensión Lasa ELAkideari bialdutako eskutitz batetik ateratu dugu. Gure ustez ELAko kideak, talde sindikal honen eta EAJren arteko erlazioak, nolakoak izan behar ziren ulertzeko balio du. "cada uno, respete los campos de acción propios y solo se unan en empresas de orden nacional. En una palabra el aforismo vasco "Acort eta aparte". "Extracto de la carta de DONOSTI a ASCENSIÓN LASA". (A.A. EBB-203-1)

<sup>23</sup> Carmelo Landak, Leizaolari buruz egindako liburuan Leizaola izan zela SEVeko sortzaileetarikoa dio eta berari lagundu ziotenen artean, besteak beste ELAkideak ziren Robles Arangiz eta Eliodoro de la Torre aipatzen ditu. Beraz pentsatu beharra daukagu SEV sortu zuenerako Eliodoro de la Torre ELAkidea zela. CARMELO LANDA: "Jesús María de Leizaola. Vida, obra y acción política de un nacionalista vasco. (1896-1937)", Fundación Sabino Arana, Bilbao, 1995 (173. orri.).

<sup>24</sup> Koldo San Sebastian, Euzkadi 172 zkia. 1985eko urtarrilaren 10. (23 orri).

<sup>25</sup> ELA sindikatuak kongresu honen ondorioz bere gaztelarazko izena aldatu zuen. Enplegatuak sindikatuaren barruan hartzeko, ordura arte SOV, Sindicato de Obreros Vascos, deitzen zen erakunde, STV, Solidaridad de Trabajadores Vascos, deitzera pasatu zen.

<sup>26</sup> "Memoria del ejercicio social de Solidaridad de Empleados Vascos". Imp. Etxenagusia. Bilbao, 1933. (4. orri.) eta IGNACIO OLABARRI GORTÁZAR: "Relaciones laborales en Vizcaya (1890-1936)". Leopoldo Zugazak argitaratuta. Durango, 1978. (140. orri).

<sup>27</sup> JUAN PABLO FUSI: "Las organizaciones obreras en el País Vasco durante la II República" "Gernika: 50 años después (1937-1987). Nacionalismo, República, Guerra Civil" liburuan batutako artikulua. San Sebastián, EHU/UPV, 1987. (107. orri).

1933an ELA sindikatuak Gasteizen egindako II. Kongresu garrantzitsuan kontsumo kooperatibei buruzko txostena prestatu zuen Eliodorok. Txostena Eibarko Graciano de Ormaetxeak aurkeztu zuen, arrakasta handia lortuz. Bertan Eliodorok kontsumo kooperatibengandik epe laburrean (gauzen salneurria eta kalitatea) zein ertaineko epean (irabazien banaketa edo irabaziekin egindako ospitaleak eta abar) lortutako etekinak azaldu zituen. Gero, adibide bezala, hauetariko kooperatiba batek lortutako etekinen berri eman zuen. Azkenik ELAko talde guztiei kooperatibak sortzeko aholkua eman zien, denen artean euskal kooperatiben federakuntza sortzera heldu arte, erakunde honek emango zituen onurak benetan garrantzitsuak izango zirela adieraziz, erositako gauzen salneurriak murriztuz. Era berean Federakunde honek banketxe lanak egingo zituen Kreditu Kooperatiba sortuz. Txostenaren azken atalean industri ekoizpen, arrantza eta nekazal arloko kooperatibei buruz hitz eginez amaitzen zuen.

Txostenaren harrera hain ona izan zen, Eliodoro bera altxatu beharrean ikusi zela txaloak eskertzeko. Kongresu honetan parte hartzen zuen Julio Jauregik berak ere, Kongresuak langileen kooperatiben alde Eliodorok egindako lana eskertu beharra zeukala proposatu zuen, berriro ere kongresuko kideen artean txalo sorta sortuz. Hurrengo egunean, ELAko ordezkariak sindikatuko aberri batzordea hautatu zutenean, lehendakariordetza eman zioten Eliodorori. Batzar Orokor honetan Manu Robles Arangiz hautatu zuten sindikatuko lehendakaria.

Iturri askorik ez bada ere, pentsatzekoa da Eliodoro de la Torrek ELA sindikatuaren alde lan egiten jarraituko zuela hurrengo urteetan. Berari buruz daukagun aipamen bakarrak, berak emandako hitzaldien berri baino ez digute ematen. Hitzaldiak behin eta berriro kooperatibekin zerikusia zituzten gaiak jorratzen zituzten.

1936an, gerraren hasierarekin, Eliodoro eta ELAren arteko harremanetan atal berri bat ireki zen. Eliodorok lehenengo Bizkaiko Guda Batzordean parte hartu zuen eta gero Agirre Lehendakariak eratutako Euzkadiko Jaurilaritzan Ogasun Sailburu kargua izan zuen. Hemendik hasi zen Eliodoro eta ELA sindikatuaren arteko urruntzea, nahiz eta, zehaztak izateko, Eliodoro eta ELAko agintari batzuen arteko urruntzea aipatu behar genuke, eta oraindik zehatzagoak izateko, Eliodoro de la Torre eta sindikatuko lehendakaria zen Manu Robles-Arangizen arteko urruntzea.

Gehien bat, Robles Arangizek Eliodorori sindikatua kontrolpean nahi izatea leporatzen zion, eta horretaz aparte 1937tik Eliodorok ez zuela ELA kontutan hartzen ere leporatzen zion, beti saiatu zela ELAren izana debekatzen eta alde batera uzten.<sup>28</sup> Arazo honi diru eza gehitzen zitzaion. Gerra amaitu ostean, Elio-

---

<sup>28</sup> GARDE ETAYO, María Luisa: "ELA entre dos guerras. (1936-1946)". Pamiela argitaletxea. (84. orri). Gehien bat ELA eta Eliodoro de la Torreren arteko harremanak azaltzeko agiriez gain Garde Etayoren liburu hau erabili dugu.

doro zen, geratzen zen diru apurren kudeatzaile eta banatzaile, eta inor ez zen adoz berak egindako banaketarekin, ELAko kide eta agintariek barne.

Zaila da jakitea benetan zer gertatu zen arazo honetan. Baina gerrak eta ondoriozko erbesteratzeak, gehi II Mundu Gerrak, oso egoera berezia sortu zuten ELAren egiturari. Honela sindikatuko agintari askok beraien karguak balio gabe zituzten baina hala eta guztiz kargu horiekin aurrera jarraitzen zuten. Arangizi berari ere bere lurraldeko federakundearekin, hau da Bizkaiko Federakundearekin, bere egoera ez zela bidezkoa leporatzen zioten.<sup>29</sup>

Baina, ELAk Jaurlaritzaren eta Eliodororekiko kritikekin batera, harremanak mantendu zituen, eta hilabete hauetako beste eskutitz batzuen arabera ez zuen arazo larririk zegoenik ematen. Hemen ELA, edo hobe esanda Arangiz eta Eliodoroaren arteko harremanak azaltzerakoan batek pentsatzen du beharbada distantzian gauzak beste era batera ikusten ditugula eta guretzat arazo larriak zirenak bertan momentuan ez zirela horrenbeste larritasunarekin ikusten.

Eliodoro de la Torre hil zenean, ELAk Baiona aldean egindako lanaren berri ematen zuen "Capi"k, heriotza aipatzerakoan, 1946ko otsailaren 4an idatzitako orrian, Eliodoro bazkide berezia zela esaten zuen, Gasteizeko kongresuan Aberri Batzordeko kargu baterako hautatua izan zela adieraziz. Berak egindako lana goraiatzeko ematen zuen, eta azkenik ehorzketa aipatzen zuen, joandakoen zerrenda laburra emanez. Nahiz eta ELAko ordezkariak ere bertan izan zirela esan, ez zuen hauen zerrendarik ezta izenen aipamenik ematen. Azkenik ELAko Batzorde Aholkulari Iraunkorrek Miarrizten argitaratutako orritxoko 6. zenbakian, Eliodoroaren heriotzaren berri ematen zen, baina oso era laburrean aipatuta.<sup>30</sup>

#### 4. JEL eta GEMEan<sup>31</sup>

Eliodoro de la Torrek Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan egin zuen bere ibilbide politiko guztia. Aztertutako iturrietan gazte sartu zela Eliodoro EAJn aipatzen da, beste argibiderik eman gabe.

Lehenengo urteei buruzko argibiderik ez badaukagu ere, 1930eko hamarkadan erabat politikagintzan sartuta ikusten dugu Eliodoro de la Torre. Baina hasierak ez ziren berarentzat errazak izan.

<sup>29</sup> GARDE (332. orri)

<sup>30</sup> EUZKO LAGILIEN ALKARTASUNA. Comité Consultivo Permanente. Circular nº 6. 31 enero 1946.

<sup>31</sup> JEL, denok ezaguturiko laburketa da: Jaungokioa Eta Legezarra da bere esanahia. Honekin batera, eta batez ere eskutitzak amaitzeko, behin baino gehiagotan erabili zuen Eliodoro de la Torrek GEME laburketa. Azken honen esanahia hauxe zen "Gora Euskadi, Muera España". Eskutitzak sarri amaitzen ziren "En JEL y GEME. Se despide..." esaldia erabiliz.

1931an Deustuko EAJko agintarietarikoa bat zen. Urte honetako apirilaren 12an antolatu ziren udal hauteskundeetarako bere burua aurkeztu nahi izan zuten Deustuko jeltkide batzuk, baina ez zuten lortu, gehiengoak ez baitzuen onartu. Berritro ere Deustuko EAJko Uri Buru Batzarreko Lehendakaria, Eugenio Olabarrieta Arteta, zinegotzi hautatua izan ondoren, Deustuko EAJko erakundeko lehendakaritza hartzeko aurkeztu zen Eliodoro de la Torre. 1931ko apirilaren 30ean ospatu ziren jeltkideen barneko hautaketa hauek, baina kasu honetan ere gehiengo batek ez zuen Eliodoro onartu.<sup>32</sup>

Politika lanekin jarraituz, Eliodorori buruz ikusitako biografia guztietan 1931an, Bilboko udaletxean zinegotzi lanak bete zituela aipatzen da, hain zuzen ere Deustuko ordezkari bezala.<sup>33</sup> Baina guk lortutako argibidearen arabera, ez zen horrela izan.

Udaletxeetarako hauteskundeak, 1931ko apirilaren 12rako deitu ziren. EAJk aurrez zituena bere hautagaiak, baina Deustuko zerrendan ez zen Eliodoro de la Torre agertzen. Hauteskundeak ospatu eta Deustun hautatutakoak, Juan José Basterra eta Eugenio Olabarrieta baino ez ziren izan. Ez da beraz Eliodoro inon agertzen.

Joseba Agirreazkuenagak eta Susana Serranok Bilboko Udaletxeko agintarietari buruz idatzitako liburuan ez zaigu Eliodororen izena inondik inora agertzen. Beraz, gure ustez Eliodoro ez zen inoiz Bilboko zinegotzia izan.<sup>34</sup>

1933an Madrilera egin zuen salto Eliodorok. Urte honetako azaroaren 19an izandako hauteskundeetan Madrileko Gorteetan diputatu akta lortu zuen. Baina ez zen azkeneko unera arte bere hautagaitza erabaki. Azaroaren 17ko "Euzkadi" egunkarian agertutako zerrendetan Ignacio Rotaetxeren izena kendu eta Eliodororen izena agertzen zen. Azpian jarritako oharrean argitzen zen alda-

<sup>32</sup> TAPIZ, José María: "El PNV durante la II República". Edit Fundación Sabino Arana. Bilbao 2002. (67. orri.) Hautaketa honetan hainbat tira bira izan ziren. Badirudi jeltkideek aparte, jeltzaleek ere eman zutela botoa (orduana EAJren barnean ez zen hain arraroa hau gertatzea) eta azken hauen botoaren eraginez, lau boto faltan, ez zuen Eliodorok kargua lortu. Azkenean Deustuko Uri Buru Batzarreko Lehendakaria Pedro Gomendiourrutia izan zen eta idazkaria Juan Mendizabal, 1931ko maiatzaren 3ko "Euzkadi" egunkariaren alean iragarrita agertzen den bezala.

<sup>33</sup> Jesús María Leizaolak, Eliodoro de la Torre hil eta gero 1946an Pariseko "Euzko Deya"n idatzitako artikuluan ez du honetaz ezer adierazten. Lehenengo aldiz honen berri 1979ko uztailearen 2an "Euzkadi" aldizkariaren 136. zenbakian ikus dezakegu. Bertan Deustuko Udaletxean zinegotzi lanak bete zituela esaten da. Artikulu honetan, bestalde, bere jaiotze data gaizki jarrita agertzen da. 1985eko martxoan argitaratutako "Muga" aldizkariako 41. zenbakian Deustuko ordezkari bezala Bilboko udaletxean zinegotzia izan zela aipatzen da. Koldo San Sebastiánek ere gauza bera dio ("Euzkadi" 172 zkia, 1985eko urtarrilaren 10. 23. orri). Berritro "Euzkadi" aldizkariako, 263 zenbakian (1986ko urriaren 9an 28. orri.). Baina beste datu batzutan akatsak dituzte artikulua hauek, beraz larregi ez fidatzerik garamate.

<sup>34</sup> AGIRREAZKUENAGA, JOSEBA eta SERRANO, SUSANA: "Viaje por el poder en el Ayuntamiento de Bilbao-Bilboko Udal agintean barrena. 1799-1999". Bilboko Udalaren argitalpena. Bilbao, 1999.

ketaren zergatia: Ignacio Rotaetxek udaletxe batzuetarako eta Portuko Obretako Batzordearentzako egiten zuen lan eta diputatu bezala hautatzea ezinezkoa zen. Hori zela eta EAJko agintariek Rotaetxe kendu eta Eliodoro ipintzeko egoeran ikusten ziren. Honela sartu zen kandidaturan Eliodoro de la Torre, hauteskundeetarako egun bi falta zirenean.<sup>35</sup>

Hauteskundeetan 39.227 boto lortu zituen Eliodoro de la Torrek Bizkaiko herrietan. Bere aurretik José Antonio Agirre bera baino ez zen geratu (40.046 boto lortu zituela).

1936an berriro ere kongresurako aurkeztu zen. Lehenengo hautaketan boto nahiko lortu ez eta bigarren hautaketa egin beharra izan zen. Martxoaren 1eko emaitzak onak suertatu ziren jeltzaleentzat. Eliodororen kasuan, hain zuzen ere, 24.998 botu lortu zituen. Honela ba, Madrilen betetzen zuen lanarekin jarraitu zuen, Gerra Zibiliaren hasierak hain labur egingo zuen agintaldi honetan.

Politikari buruzko atal honi bukaera emateko joan gaitezen orain Eliodoro-ren pentsaera politikoa aztertzeraz. Jelkide bezala Eliodoro Euskadiren askatasunaren aldekoa zen. Sozialistek "Nacionalista Vasco Integral" deitzen zioten eta Jaurilaritzan beste alderdi batzuetako ordezkarien parte hartzea behin eta berriro ostoputzen zuela egozten zioten.<sup>36</sup>

Inolako hausturarik gabe, baina Eliodororen ustez, jelkideek zeramaten borroka, Euskal Herri askatuarekin bukatu behar zuen. Pentsaera honen adibide ugari utzi zigun bere eskutitzetan: adibidez 1941eko otsailaren 15ean nazien menpe zela Marseillan honela idatzi zion Aldasorori: "Estamos donde estábamos y cada día más firmes en nuestra posición anterior. Azkatuta (sic) hoy más que ayer y mañana más que hoy. El enorme sacrificio de nuestro pueblo por su liberación no ha de quedar sin premio".<sup>37</sup> 1941eko azaroaren 17an "Manu"ri (beharbada Manuel Sota) idatzitako eskutitzan ere askatasunaren aldekoa agertzen zen, eta hau lortzerik ez balego gutxien jota Lizarran 1931an onartutako Estatutua izango zela helburua adierazten zuen.<sup>38</sup> 1943. urteko hasieran Euska-

---

<sup>35</sup> "Euzkadi" egunkaria (1933/11/17). Aipatutako ohartxoan Eliodorori buruz emandako argibide bakarra ELAkoa zela zen. Hemen ere, eta goian aipatzen genuen bezala Eliodoro Bilboko zinegotzia izan zen ala ez argitzerakoan, hala izan balitz, gure ustez Eliodorori buruzko argibidea ematerakoan aipatuko zuten Bilboko zinegotzia zela edo izandakoa zela. Baina ez zen ezer esaten.

<sup>36</sup> "Informe referente a la actuación de la Consejería de Hacienda del Gobierno Provisional de Euzkadi, que la Federación Regional de Trabajadores del Crédito y de las Finanzas eleva al Comité Ejecutivo Nacional".(A.A. GE-272-5)

<sup>37</sup> Eliodoro de la Torrek, "Urtantea" ezizena erabiliz, Marseillatik, 1941eko otsailaren 15ean Aldasorori idatzitako eskutitza. A.A. 806-4. Eskutitzaren beste ale bat A.A. S-760-12

<sup>38</sup> Eliodoro de la Torrek, "Ibarrekolanda" ezizena erabiliz, "Manu"ri (beharbada Manu Sota) 1941eko azaroaren 17an idatzitako eskutitza. A.A. GE-265-4

di askaturik lortzerik ez zegoela eta beste irtenbide batzuk aurkitu beharra zegoela uste zuen, nahiz eta bera askatasunaren aldekoa izan.<sup>39</sup>

## 5. Bakarra izanda, egokiena? edo egokiena izanda, bakarra?

1936ko uztailaren 20an, 18an hasi zen gerrari aurre egiteko, Bizkaiko Gobernadore Zibilak alderdi politiko guztietako ordezkariak batu eta erantzukizun ezberdinak banatu zizkien, horretarako ordezkariak ezberdinak sortuz. Eliodoro de la Torre ogasuneko ordezkari izendatu zuten, berarekin batera, Komisari bezala, Ambrosio Garbisu jarritz. Gero, abuztuaren 12an egindako batzarrean, gerrari aurre egiteko Bizkaiko Guda Batzordea osatzea onartu zen, eta saila bakoitzeko arduradunak izendatu ziren. Batzar honetako aktan esaten zen bezala, saila bakoitzeko arduradunak Zuzendari Nagusiaren deitura hartuko zuten. Beraz, Eliodoro de la Torre Ogasun Saileko Zuzendari Nagusi izendatu zuten.

Arrazoi bi baino ezin dira egon Eliodororen hautaketa ulertzeko: banketxeak edo ELA. Alde batetik pentsa dezakegu, ordura arteko hauteskundeetan gertatu bezala, berriro ere EAJk ELArekiko harremanak indartu eta estutu nahi zituela. Eta horretarako ELAkide bat behar zuen Guda Batzordean. Beste arrazoi bat banketxeak izan daitezke. Gerra hasi berria zen eta gerrari aurre egiteko sortutako Guda Batzordeak dirua behar zuen. Dirua banketxeetan zegoen, eta beharrezkoa zen honengandik dirua lortzeko banketxeen lana ondo ezagutzen zuen pertsona eta banketxeetako arduradunek ondo hartzen zuten pertsona bat, eta baldintza hauetan bai sartu dezakegula Eliodoro de la Torre.

Hau guztia esanda ere, beti geratzen zaigu beste aukera bat. Eta hau, Eli Etxeberriak, gerra garaian eta gerra ostean EBBko kidea izan zenak, ematen digu. Berak egindako adierazpenak jarraituz, Eliodororen hautaketan ez zen arrazoi berezirik egongo: besteekin gertatu zen bezala, gerra garaia zen eta ezin zen jende hautaketa handirik egin, beraz eskura zeudenen artean erabakitzen zen nork hartu behar zuen erantzukizun bakoitza, eta beste batzuei gertatu zitzaizkien bezala, Eliodoro ere eskura zegoelako hautatu zuten Bizkaiko Guda Batzordekide izateko. Posiblea litzateke?.

---

<sup>39</sup> 1943an Doroteo Ziauritzekin aurkitu eta berarekin izandako elkarrizketaren berri honela ematen zion Agustín Alberrori: “hablamos de nuestras cosas, y me pareció que continúa en la luna, porque muy serio me aseguraba que ahora o nunca se llegaría al azkatuta (sic). Yo más bien creo que los nuevos acuerdos comerciales (hemen ziurrena Espainiako monarkikoekin edo beste talde batzuekin izandako elkarrizketei buruz edota Estatu Batuetarrek eta ingelesekin izandako harremanei buruz ari da) nos llevarán a la formación de un trust, y si dentro de él, obtenemos el Reglamento de Iizarra, me parece será bastante. Dios quiera me equivoque.” Eliodoro de la Torre, Agustín Alberrori 1943ko martxoaren 13an idatzitako eskutitza. A.A. 1-114-2.

Guda Batzordean hartutako erabakiak gehien bat gerrari aurre egitera zuzenduta joan ziren, eta era berean, iharduera ekonomikoak normalizatu eta bermatzera, ahal zen neurrian, gerraren eraginez izan zitezkeen tira birak eze-rezean utziz.

Lehenik eta behin dirua lortu beharra zegoen. Horretarako Eliodoro de la Torrek alde batetik banketxe eta aurrezki kutxetako agintariak batu eta 1936ko abuztuaren lehen hamabostaldian milioi bat pezeta ematea eskatu zien. Bestalde Espainiako Gobernuak Bilboko Espainiako Banketxean zeuzkan 50 milioi pezeta ere Bizkaiko Guda Batzordearen izenean jartzea lortu zuen. Diru kopuru honekin, hornigaiak lortu ziren, bai biztanlegoarentzat, zein lantegientzat.

Esportazioak ere erabat saildu ziren lantegien lana eragotziz. Kanpoan gairik saltzea ezinezkoa izanda, ezin zen diru sarrerarik lortu eta ezin zen lantegietarako gairik erosi ezta langileei ordaindu. Irtenbidea bilatu nahian, Guda Batzordeak bermatuz, banketxeek eman zieten dirua fabriketako arduradunei bertoko langileen soldatak ordaintzeko, hauek egindako produktuak garantia bezala hartuz.

Bestalde, gerra zela eta dirua erabat desagertu zen, iharduera ekonomikoa sailduz. Orduan banketxeek luzatutako taloak jarri ziren martxan, diru lana egin zezaten. Gero taloi hauek batu eta berriro beste batzuk luzatu ziren. Neurri honen arrakasta handia izan zen eta diru ezaren arazoa erabat konpondu zuen.<sup>40</sup>

## 6. "... lanak sarigariak dirala-ta..."<sup>41</sup>

1936ko urriaren 1ean, Euskal Autonomi Estatutua onartu zen eta handik sei egunera, urriaren 7an, José Antonio Agirrek, Lendakari kargua sinatu zuen Gernikan. Lehenengo Jaurlaritza osatu eta Ogasun Zaingoko Burukidea, Bizkaiko Guda batzordean hasitako lanari jarraipena emanez, Eliodoro de la Torre izendatu zuten.

Ogasun saileko lanari buruz hitzegiten denean, beti aipatzen da Eliodoro de la Torreren garrantzia. Baina gure ustez, Eliodorok izan zuen dohaietariko bat, bere laguntzaileak ondo aukeratzea izan zen. Ogasun saila osatuko zuten laguntzaile eta langileak aukeratzekoan, Bizkaiko Aldundian eta Banketxeetan lanean zeuden pertsonaiak hartu zituen. Dakigunez Eliodoro bera ere banketxetan lan egindako pertsonaia zen, beraz ez da harrizkeoa horrela jokatzea.

<sup>40</sup> A.A. S-765-46. "DATOS SOBRE LA ACTUACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE FINANZAS" orri biko txostena. Parisen, 1938ko apirilaren 2an sinatuta.

<sup>41</sup> Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa 1936ko urriaren 9an, Agirre Lendakariak sinatuta argitaratutako oroaginduak hala esaten zuen: "De la Torre'tar Eliodor, egin ditun lanak sarigariak dirala-ta, Euzkadi'ko bitarteko-jaurlaritzaren ogasunzaingoaren Burukide izendatu det".

Honetaz gain ordurako Bizkaiko Aldundian erantzunkizuneko karguak betetzen zituzten pertsonak ere aukeratu zituen. Gero, gerrak eta erbesteratzeak ekarri zituzten ondorioen eraginez, langile batzuekin harreman estuagoak izan zituen eta beste batzuekin gutxiago. Honela ba Bilbon zeuden bitartean bere konfiantzazko gizonak, Lucio Aretxabaleta, Angel Perez Anuzita edo Andres Perea izan baziren, gero erbestean zela Lucio Aretxabaleta eta Juan Olazabalekin estutu zituen harremanak. II. Mundu Gerra hasi zenean eta ihes egin behar izan zuenean, Xabier Gortazar eta Agustin Alberroekin izan zituen batez ere harremanak. Azken bi hauekin mantenduko zituen harremanak hil arte.

Ogasun sailean egindako lanak hiru alde izan zituen: alde batetik, eta beste aukerarik ez zegoela, gerrak sortutako gastuei aurre egitea zen bere helburu nagusia. Honekin batera Euskadiko ekonomiak bere produkzio eta trukaketa mailak mantentzea eta bestalde, eta Jaurlaritzako kide abertzaleen asmoak jarraituz, Espainiarekiko askatasunik handiena lortzea.

Gerrari aurre egiteko, enpresak nazionalizatu gabe, ordezkariak izendatu zituen gerrarako garrantzitsuak ziren enpresa guztietan.

Eliodoro de la Torrek Ogasun Zaingoaren kasuan, argi zeukan askatasun politikoa izateko, askatasun ekonomikoa ezin bestekoa zela eta bere lan guztiak zentzu honetan egin zituen nahiz eta lana erraza ez izan eta lehenengo unetik arazoak izan, batez ere beste alderdi politikoetako ordezkariekin.

Gerra galdua zenean Eliodororen helburua, kanporatutako euskal ondasunak bermatzea eta gordetzea izan zen. Argi zeukan Jaurlaritzaren barnean talde guztien partaidetza bermatzeko, eta horrela Agirre Lendakariak eman nahi zuen batasun irudia mantentzeko, beharrezkoa zuela baliabide ekonomiko propioak izatea. Iritzi hau oso kritikatu izan zen Espainiako Gobernutik eta Mendez Aspe ogasun ministroak adibidez, ez zuen berarekin harremanik nahi izan.

## **7. Euskaditik Kakerrira eta Kakerritik Euskadira<sup>42</sup>**

1937ko ekainaren 19an matxinatuen gudariak Bilbon sartu ziren. Martxoan, altxatutakoen bultzakada berria hasi zenetik, gerra irabaztea saila ikusten bazen ere, Bilbo galtzeak, irabaztearen ametsa guztiz apurtu zuen. Beraz, euskaldun askori geratzen zitzaien aukera bakarra erbestera alde egitea zen. Aukerak, lehenik eta behin Iparralde eta Katalunia ziren. Eskualde hauetara heltzeko hartu beharreko bidea Santander aldetik pasatzen zen.

---

<sup>42</sup> Izenburuak Eliodoro de la Torrek hurrengo urteetan egingo zuen ibilbidea laburtu nahi du. Euskal Herritik urten eta Santander aldera eta handik Iparraldera. Gero Frantziako Marseilla aldean. Herri hauetan bizi zuten egoera oso eskasa izan zen. sasoi honetako eskutitzetan, nondik idatzita zeuden adierazterakoan "Kakerrri"(kaka erri) izena erabili zuen Eliodork behin baino gehiago. Guztiz adierazgarria.



Gobernukideak bertan izateaz aparte, Euzkadiko Jaurlaritzak bulego bat finkatu zuen Santanderren, euskaldunen erbesteratzea antolatzeke asmoz, eta lan horretan ihardun zuen, besteak beste, Eliodoro de la Torre.

Eliodorok erbesteratuen garraiotze lanak eta zauritutako gudarien garraioa La Rosaireko ospitalerantz antolatu zituen Santanderretik. Bere emazteari eta Lucio Aretxabaletari bialdutako eskutitzetan azaltzen zuenez, oso egoera larria bizi zuten euskaldunek Santanderren, bai gerrak sortutako egoeragaitik zein Santander aldean izan zuten harrera eskasagaitik. Eta erbestera zihozazenen beharizenak ikusiz, Eliodorok ezin zuen bere tristura eskutatu. Lucio Aretxabaletari idatzitako eskutitzan Eliodorok argi adierazten zuen diru eza zela eta, erbesteratu gehienak Hego Euskadira eta Bartzelona eta Valentziara bideratzea proposatu ziola Agirre Lendakariari.<sup>43</sup>

1937ko ekainaren 22an Alfredo Espinosak Osasun Zaingoko Burukidea hegazkinez Euzkadiko hegoalderantz zetorrela, Zarautzeko hondartzan lehorreratu beharra izan zuen. Frankistek harrapatu eta fusilatu zuten. Orduan, eta Agirre Lendakariaren aginduz, Eliodoro de la Torre hartu zuen beregain Osasun Zaingoko ardura.

Hautaketaren zergatia badirudi orduan Unión Republicana, Espinosaren alderdiak, bizi zuen banaketan aurkitzen dela. Espinosa hil eta gero, bere alderdiko beste alderdikide batek hartu beharko zuen zaingoaren ardura. Baina alderdi honek Gipuzkoan eta Bizkaian zeuzkan agintariak ez ziren adoz jarri eta Agirrek egoera larria zela-eta, bere hurkoa zen Eliodoro izendatzea erabaki zuen.

Agirre Lendakariak hartutako erabakian, izan daiteke, baita ere, gero eta indar gehiago hartzen zihozan zaingoa, propagandarako balioa kontutan hartuz, kontrolatzeko asmoa. Unión Republicana alderdiak bizi zuen krisiak Lendakariaren lana erreztu zuen.<sup>44</sup>

Berehala ekin zion Eliodorok, bai Iparralden zein Katalunian jendea hartzeke behar ziren baliabideak prestatzera. Erbesteratuen artean talderik behartsuenetarikoa zauritutakoena zen. Beraientzat, 1937ko uztailean prestatzen hasi eta abuztuko azkenetarako, Miarrizetik gertu zen, Ilbarritzen, ordura arte udatiarrentzat hotel bezala erabiltzen zen eraikin bat alokatu eta ospitale bezala prestatu zuen: La Roseraieko ospitalea.

<sup>43</sup> Eliodoro de la Torre eskuz Fermina bere emazteari Santanderretik idatzitako eskutitza 1937ko uztailearen 17an. (Iturrate sendiak emandako eskutitza) eta Lucio Aretxabaletari 1937ko uztailearen 5ean idatzitako eskutitza. A.A. GE-275-2.

<sup>44</sup> Goian aipatutakoari buruzko azterketa: JIMENEZ DE ABERASTURI "De la derrota a la esperanza: Políticas vascas durante la segunda guerra mundial (1937-1947)". Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Oñati, 1999. (53 eta 54. orri).

La Roseraieko ospitalea Eliodoro de la Torrek antolatu zuen zuzenean eta bere ardurapean zegoen.<sup>45</sup> Gonzalo Aranguren izendatu zuen bertako zuzendari eta 60 ohe zituen. Bere menpe sendagile taldetxoak eta 20 erizain zeuden. 1937ko abuztuaren 27tik, 1939ko maiatzaren 31ra arte 1.552 ebakuntzatik gora egin ziren. Eta 1938tik 1939ra, 116 jaiotza izan ziren bertan. 1938an zehar, hilerro, 239 gaixo sendatzen ziren ospitalean eta 1939an 363ra igo zen kopuru hau.

Jendea osatzeaz gain, 1938ko urtarrilean La Roseraien elbarrituentzat taile-rrak antolatu ziren. Bertan ospitalean erabiliko ziren protesiak egiteaz aparte, lanbide berriak ikasten saiatzen ziren elbarrituak eta ospitaleko gaixoak. Urtarrilan langile birekin hasi ziren lantegiak, abendurako 145 langile elbarritu eta gaixo hartzen zituzten. Egunean sei ordu egiten zuten lan eta ordez janaria eta ohea emateaz gain soldata irabazten zuten. Lanaz aparte hainbat ekintza kultural ere egiten ziren La Roseraien, besteak beste, matematika, frantsesa eta euskera irakasteaz gain, korua zegoen eta kirola eta abar egiteko aukera guztiak.

Baina ez zen ekintza bakarra izan. “Euzkadi” ospitalea, hagineta minak tratatzeko klinika, “Gernika” ospitalea edo “Otxandio” ospitalea dira besteak beste, Eliodorok osasun sailean egindako lanaren adibide.

Iparreko frontea frankisten esku geratuko zela ikusiz, 1937ko udazkenerako Euzkadiko Jaurlaritzak bere egoitzaartzak Bartzelonara eramatea erabaki zuen. Jimenez de Aberasturik esaten duenaren arabera, iraileko lehen astean Baionan izandako batzarrean hartu zen erabakia: De la Torre, Nárdiz eta Astigarribia Bartzelonara joango ziren; Monzón eta De los Toyos Bruselara; eta Gracia eta Leizaola Parisen geratuko ziren. Beraz Eliodorok Bartzelonarantz egin zuen.

Eliodoro, Jaurlaritzaren antolaketara eta batez ere Katalunian, eta bereziki Bartzelonan, ziren euskaldun erbesteratuen beharizenei aurre egiten saiatu zen. Bitxikeri bezala, urriaren 30ean Eliodorok Euzkadiko Jaurlaritzako Lendarikaritzak hartu zuen, José Antonio Agirrek kanpora egin behar zuen bidaia zela eta berak emandako aginduz.<sup>46</sup>

1939ko urtarrilaren 26an, Bartzelona Frankisten esku geratu zen. Lehenengo unetik Euzkadiko Jaurlaritzak saiatu zen euskaldunen “erbesteratze” berri hau behar bezala antolatzen baina ez zen batera erraza. Lehenengo Figueresetik eta gero Perpinyatik hainbat ekintza jarri ziren martxan. Eliodoro de la Torrek Perpinyako Sala hotelean ezarri zuen Euzkadiko Jaurlaritzaren ordezkaritza eta bertatik, Andrés Irujo, Juan Manuel Epalza eta José Amuritzarekin eta Lucio Aretxabaletaren zuzendaritzapean erbesteratzea antolatzen saiatu zen.<sup>47</sup> Eurek

<sup>45</sup> ABERASTURI “De la derrota...”. (56. orri.)

<sup>46</sup> EUSKO JAURLARITZA: “Eliodoro de la Torre, primer consejero de hacienda...” (67. orrialdea).

<sup>47</sup> Kataluniako frontea bertan behera geratu eta euskaldun eta beste erbesteratu batzuk nola pasatu zuten muga zehatz jakiteko: ARRIEN, Gregorio eta GOIOGANA, Iñaki: “El exilio vasco de la Guerra del 36. Cataluña-Francia, 1936-1940” (391-404 orri)

egindako lanetariko bat, euskaldunen artean Euzkadiko Jaurlaritzaren "igarobi-deak" banatzea izan zen, Frantziarrak agiri hau onartuko zutelakoan.

Perpinyako bulegoak euskaldun askoren egoera konpondu bazuen ere, gehienak laguntzatik kanpo geratu ziren eta Frantziako gobernuak Konzentrazio Zelaietan sartu zituen, ordutik aurrera erabat gogorra izango zen egoera biziz. Egoera hau lasaitzeko asmoz, eta beste irtenbiderik ez zegoela ikusiz, Jaurlaritzatik, ordura arte begi onez ikusi ez bazuten ere, Amerikarako erbeste-ratzea bultzatzen hasi ziren.<sup>48</sup>

Ameriketako herrialde hauen gobernuetako ordezkariekin izandako harremanetan Eliodoro ere agertzen zaigu.

Hilabete hauek, Eliodorok erbesteratu euskaldunei eman behar zitzaizkien dirulaguntzak banatzen igaro zituen. Diru kudeaketa Euzkadiko Jaurlaritzaren egoitza egin zuen gehien bat, Pariseko Avenue Marceaun zegoen Jaurlaritzako ordezkarietatik. Baina errefuxiatu eta erbesteratuen egoera ez zen batere ona. Gobernuak ezin zien diru eskaerei aurre egin. Eskutitzetan edo eskaeretan bertan ipinitako oharrengatik ikus dezakegu Eliodorok berak bizi zuen arazoa, euskaldunak erabat lur jota ikusiz eta laguntzarik ezin emonda.

Baina egoera larri honi beste gertakizun bat gehitu zitzaion. 1939ko irailetik aurrera hasia zen II. Mundu Gerran alemanek aurrera egin zuten nabarmenki. 1940ko ekainaren 14ean Paris hartu zuten, adibidez egun berean La Roseraieko ospitalea itxi zuten Frantziako agintariak eta hilabete bereko 27rako Donibane Lohizunen ziren alemanak.

Euskal Gobernuako kideak alde egin beharrean izan ziren. Eliodorok, 1940ko ekainaren 25ean Baionara heldu eta bai EAJko agintariak zein Jaurlaritzako ordezkariak alde egin edo Gurseko Konzentrazio Zelaira eraman zituztela ikusi zuen. Orduan, Baionan geratu eta bete gabe zeuden lanak betetzen igaro zituen egun batzuk, batez ere errefuxiatu eta erbesteratuen laguntzan. Bitartean EAJko EBBko ordezkariak antolatu zuten jeltzaleek, Gursera eramandakoak eta alde egindakoak ordezkatzuz. Baina, jadanik, alemanek kontrola erabat areagotu zutenen Frantzia eremu bitan zatituz, Eliodorok EBBko kide berri hauei galdetu eta denek alde egin zezala esan zioten. Eliodororen asmoa Ingalaterrara alde egitea zen eta baimena lortzen saiatu zen, baina egunak aurrera joan ahal, eta ez zuela bere helburua lortzen, bertoko agintari batek bere bizia arriskuan zela jakin arazi zion eta alde egin behar zuela "aske" zen eremura esan zion.

---

<sup>48</sup> Kataluniako frontea bertan behera geratu baino lehenago Miguel José Garmendiak Mexikon zen Francisco Belaustegigoitiari 1939ko maiatzaren 30ean igorritako eskutitzan honela esaten zion: "Estos vascos són enviados a Méjico por la necesidad absoluta que hay de resolver en Francia el problema de los Campos de Concentración, que están tomando caracteres verdaderamente trágicos". A.A. GE-155-3.

Eliodororekin batera Telesforo Monzon eta José María Garate zeuden. Marseillako bidea hartu zuten, alde egiteko itsas untzi bat hartzeko itxaropenez. Gainera, kanpotik euskaldunak bialdutako diruak ere, Marseillan ziren Mexiko, Argentina edo Venezuelako kontsulatuaren bidez baino ezin zitezkeen lortu. Marseillatik oso gertu zen Cassis herritxoan finkatu ziren. Leizaolaren eskutik, Agirre desagertuta, bera baitzen Lendakaria, Marseilla aldean zeuden euskaldunen eta batez ere EAJko buruzagien eta Gobernukideen berrantolaketa hasi zen.

Behin eta berriro saiatu zen Eliodoro Marseillatik alde egiten baina batzuetan itsas untzirik ez zegoelako, beste batzuetan diru falta zela, beste batzuetan gaizki ulertuak, eta beste hainbat arazo zirela medio azkenean hilabeteak aurrera joan eta Eliodoro eta Ferminak jarraitzen zuten Marseilla inguruan.

Urtea amaitu baino lehenago, abenduaren 24an, Argentinako presidentek berak ere, Vichyn zen Argentinako enbaxadara bialdu zuen Eliodoro de la Torreren aldeko eskaria.<sup>49</sup>

Hilabeteak aurrera joan ahala, eurekin ziren ia guztiak Frantziatik alde egiteko baimena lortu zuten. Egoera honek lur jota utzi behar izan zuen Eliodoro, eta honela Aldasorori idatzitako eskutitzan “aquí quedamos nosotros a expensas de lo que ahi podais hacer. Nuestra suerte parece bastante incierta y Dios proveera” esaten zion.<sup>50</sup>

Egoera honetan Eliodorok, Londresen ziren Luis Ortuzar eta Manuel Irujoren arteko tira biren berri izan zuen. Era berean Marino Gamboarekin zeuden arazoak berri ere izan zuen. Baina ez zuen ezer egin, alde batetik berak egin zezakeen alperrekoa izango zelakoan eta hau honela izanda, zerbait bialduz gero, alemanak bere atzean jartzea baino ez zuelako lortuko.<sup>51</sup>

Ordurako Eliodorok ikusten zuen zerbait arraroa gertatzen zela eurekin, eta Agustín Alberrori bialdutako makinaz idatzitako eskutitz batean bere eskuz idazten zuen bezala, zeukaten “bereziki desiragarriak” sailkapenetik atera zitazela zela garrantzitsuena esaten zion.<sup>52</sup> Alde batetik arazoa politikoa zen, baina bere helburua lortzeko Gobernu Frankistak beste baliabide batzuk ere erabiliko zituen eta bai Eliodorori zein beste abertzale batzuei, besteak beste José María Lasarte diputatuari eta Anton Irala EAJko kideari, delitugile arruntak izatea leporatu zien Frankisten Gobernuak<sup>53</sup> eta frankistek alemanen esku ipini

<sup>49</sup> Eliodoro de la Torrek Vichyn zen Argentinako enbaxadoreari zuzendutako eskutitza, 1941eko urtarilaren 2an Francisco Velarren lanaren berri emanez. Iñaki Anasagastik emandako agiri kopia.

<sup>50</sup> Eliodorok 1941eko otsailaren 15ean Ramón María Aldasorori idatzitako eskutitza. A.A. S-760-12

<sup>51</sup> Eliodorok, “Urtantea” ezizena erabiliz, Agustín Alberrori 1941eko otsailaren 19an bialdutako eskutitza. A.A. 1-114-2

<sup>52</sup> “Casimiro” ezizena erabiliz, 1941eko otsailaren 1ean Agustín Alberrori idatzitako eskutitza. A.A. 1-114-2.

<sup>53</sup> GARDE ETAYO, M<sup>a</sup> Luisa: “ELA, a traves de dos guerras. (1936-1946)”. (144. orri)

zituzten zerrenda berezietan agertzen ziren eta ezinezkoa zen beraientzat irteko baimenik lortzea. Hain zuzen ere 1941eko martxoaren 3an emandako estradizio aginduan, Eliodorori egotzitako salaketak, lapurketa eta hilketa ziren.<sup>54</sup> New Yorketik, euskal ordezkarietatik, edo Prieto Mexikotik, eta Irujo Londresetik saiatu ziren Marseillan zeuden buruzagientzat eta erbesteratuentzat alde egiteko baimenak lortzen baina ezer lortu gabe.

Hilabete hauetan Eliodororen kontrako salaketa gogorak egin ziren bai bere gobernukide ziren beste alderdi politikoko ordezkarien eskutik, zein EAJ-ko gobernukide eta agintarien aldetik. Arrazoia Eliodorok diruak nola banatzen zituen zen.

1942ko abuztuaren 14an Agirrereren eskutitza hartu zuen Eliodorok. Bertan oso baikor agertzen zen Lendakaria, bizi zuten egoera politikoaurrean. Euskaldunak zituzten aukerak paregabeak zirela zioen eta orain batasuna lortu beharra zegoela esaten zion Eliodorori. Euskaldun guztiak batuta egon behar zirela eta era batuan borrokatu Espainian aldatetako gauzatzen ziren unean beraien proiektua ezartzeko. Bestalde ahal zuten guztia egiten zutela Argentinako agintarien aurrean Eliodoro eta berarekin zeuden euskaldunak Frantziatik ateratzeko esaten zion.<sup>55</sup>

1942ko azaroan, bakarrik sentitzen zen. Bere lagunak Amerikarantz irtenda ziren. Ez zuen ia dirurik erbesteratuen artean banatzeko eta Eliodorori jendeari aholkuak ematea baino ez zitzaion geratzen, untziratzeko bete behar ziren agiriak betetzen eta irtetzeko baimenak lortzen laguntzen igarotzen zituela egunak. Beraz, bere lana Cassis-Sur-Mer eta Marseilla aldean amaitua zela eta alperrik zela bertan geratzea pentsatu zuen eta bizimodua hobetu eta dirua aurretiko asmoz beste herri batera joatea pentsatu zuen Eliodorok.

1942ko azaroaren 26an heldu ziren Aire sur L'Adourrerera Eliodoro de la Torre eta Fermina<sup>56</sup>. Airen, Plainhaut kalean bizi ziren Xabier Gortazarrekin batera. Sarri zen eurekin Iñaki Azpiazu apaiza ere. Alboko Pau herrian bizi ziren beste euskaldun batzuekin ere harremanak estutu zituzten, batez ere Muñoa sendiarekin, azpalditik Eliodororen ezagunak baitziren. Diruak agortuta zeudelarik Eliodorok eta Ferminak lagunak laguntza behar izan zuten aurrera egiteko.

1943ko urtea hobe hasi zen Eliodororentzat. Mexikoko euskaldunak dirua batzea lortu zuten, eta Aquilino Lopezen bitartez, Paun ziren Muñoatarrei dirua bialdu eta hauek Eliodorori ematen zioten. Eliodorok euskaldunen artean dirua

<sup>54</sup> SEGUELA, "Franco Petain, los secretos de una alianza". Anexo 1; pag. 324. (GARDEK 434. orrialdean, 272 ohartxoan aipatutakoa.)

<sup>55</sup> Agirre Lendakariak Eliodoro de la Torreri 1942ko uztailaren 9an eskuz idatzitako eskutitza. A.A. GE-265-4.

<sup>56</sup> Eliodoro de la Torrek Telesforo Monzoni 1943ko azaroaren 1ean idatzitako eskutitza. A.A. S-760-4.

banatzeko ardura hartu zuen. Hilabeteak aurrera joan ahala Agirre Lendakariak ere igorri zien dirua. Diru hau Leizaolaren bitartez heltzen zen eta biak Eliodoro eta Leizaola ados jarrita euskal erbesteratuen artean banatzen zuten, beste zati bat Hego Euskal Herrian zeudenei bialduz<sup>57</sup>.

Garai hauetan Eliodorok ez zuen ezer jakin nahi Laburdi aldean zeuden Doroteo Ziaurritz eta EBBko beste burukideekin eta Parisen ziren Xabier Landaburrekin eta Agustín Alberroekin izan zuen harreman estua, beti ere eskutitzen bidez. Interesgarriak dira batez ere lehenengoari idatzitako eskutitzak. Bertan, alemanen menpe bizi zuten egoera komentatzeaz gain gerraren martxa ere komentatzen zuten, hau amaitutakoan hartu beharreko neurrietaz: hiru aukera agetzen ziren Eliodororen begietan: Askatasuna, Lizarrako Estatutua edo 1936ko urrian onartutako Estatutua. Eliodororen ustetan euskaldun gehienak, gutxien jota urriko estatutua nahi zuten eta asko askatasunaren aldekoak ziren. Nahiz eta askatasunaren aldekoa izan, egoera ikusiz, Eliodoro Espainia eta Euskadiren arteko erlazioak finkatu behar zuen Estatutua egokitzearen aldekoa agertzen zen, eta era berean EAJ eta Jaurlearitzaeren arteko harremanak sendotu, alde bakoitzak izan behar zituen eginkizunak zehaztuz. Bestalde Eliodororen iritzi ezagutu beharra zegoen baita ere Agirre Lendakariak esan behar zuena, berak ezagutzen baitzuen hobe, munduan zen egoera.

Bitartean baziren beste ardura batzuk Eliodororen buruan. Adibidez, bere ustez, Francok agintea utzi eta haren ordezkari euskaldunak Hego Euskal Herrira bueltatzen zirenerako, prest izan behar zituzten herrizaintza lanak egin behar zutenak. Horretarako José María Iturrateren bitartez Lucio Artetxeri idatzi zion, honetaz ardura zezan.<sup>58</sup>

1944ko lehen egunetan Jeltzaleek berriro ere baikor ziren. Beraien ustez Francok ezin zuen asko iraun eta euskaldunentzat agertzen ziren aukerak asko ziren,

Dena lasai zela eta gerra amaitzea itxaroterik baino ez zegoela ematen zue-nean berri txarrak heldu ziren De la Torre senar-emazteentzat eta Xabier Gortazarrentzat. 1944ko maiatzaren 8an Frantziako Gendarmeriak Todt erakundeko zerrendetan<sup>59</sup> aipatzen zela bere izena esan zion eta Airetik alde egiteko. Orduan Pirinioetan kokatuta dagoen Ortet herritxora alde egin zuen emaztea

<sup>57</sup> Eliodoro de la Torre, Agustín Alberro, 1943ko martxoaren 16an idatzitako eskutitza. A.A. 1-114-2.

<sup>58</sup> Eliodoro de la Torre, Agustín Alberro, 1943ko apirilaren 12an idatzitako eskutitza. A.A. 1-114-2.

<sup>59</sup> Todt erakundea 1933an sortu zuen Fritz Todt jeneral alemanak. Nazien erakunde paramilitarra zen eta bere betebeharra txukuntze eta fortifikazio lanak ziren, bai Alemanian bertan zein naziek hartutako lurraldeetan. Adibidez Arroxelan eta Normandian lurralde ezberdinetako langileak erabili zituzten "Atlantiko hezia" zeritzona eraikitzeko.

eta Xabier Gortazarrekin batera. Bitartean alemanak Landetan bilatzen jarraitzen zuten. Hilabete herri honetan igaro eta gero, ekainaren lehenengo egunetan Airera itzuli zen taldetxoa. Bertan alemanek Ortet herrian dozena t´erdi base-riiri sua eman eta hainbat herritar eta maquiseko kideak hil zituztela esan zioten. Airen egun bi igaro eta urduri ziren hirurak, nazien beldurrez, beraz, berriro alde egitea pentsatu zuten. Eugenie-Les-Bains herrira hain zuzen ere. Berriro ere hemen jakin zuten alemanek Aireko herrira joan eta hainbat herritar hil zituztela, baita ordura arte Eliodoro de la Torrek, bere emazte Ferminak eta Xabier Gortazarrek erabilitako etxean sartu eta bertan zeudenek hil<sup>60</sup>. Azkenik, alemanek alde egin eta gero abuztuaren azken egunetan Baionara bueltatu ziren hirurak eta bertatik hasi ziren lanean Baionako ordezkariak berriro mar-txan jarritz.

Baionatik<sup>61</sup> alemanek alde egin eta berehala joan zen bertara Eliodoro. Lehenengo helburua bertan berriro ere Euzkadiko Jaurlaritzaren ordezkariak antolatzea zen.<sup>62</sup> EAJko eta Jaurlaritzako agintariak Xabier Gortazar berrezarri bazuten ere Baionako ordezkariak,<sup>63</sup> ordezkariak bere iraupenean ezagutu zuen bi ataletatik, bigarren atal honetan Eliodoro de la Torre izan zen Xabier Gortazarren esanetan ordezkariak arima. Bertatik Hego Euskadira eskutit-zak bialtzen ziren, Londreseko ordezkariaren bitartez, muga itxita baitzegoen. Era berean erbesterauentzat agiri nortasunak lortzen eta egoera legezatzatzen saiatu ziren. Diru laguntzak banatu eta lana bilatzea ziren beste eginkizun bat-zuk edo Euskal Brigadaren antolaketa edo bertan zen 6.000 fitzaz osotutako ar-txiboa erabiliz, euskal erbesterauten eta honen senitarteen arteko harremanak mantentzea lortu zuten. Ordezkariak egoitzan sinatu zen baita ere Baionako Hitzarmena izenarekin ezagutuko zena, Euzko Onuemaile Batzordia eratuz.

Akordioa lortzeko baldintzak 1936ko urriaren 7an, Estatutuaren inguruan eta gobernu berria osatzerakoan izandako adostasuna zen. Lehenengo pausuak

---

<sup>60</sup> Gertakizun honi buruz hiru erreferentzia topa ditugu. Aberasturik "De la derrota a la espe-ranza..." liburuan, bertan sartu zirela esaten du eta Eliodorok alde egiten zuela, Inaki Aspiazu apaiz-ak abisatuta. (Aberasturi, 805. orri). Bestalde Leizaolak José Antonio Agirrerri 1944ko urriaren 2an idatzitako eskutitz batean (A.A. GE-468-1) Leizaolak berak idatzitako artikulua: Parisen argitaratzen zen "Euzko Deya". 231. zkia. 1946ko urtarrilaren 31an.) Azkenik, Fernando Unzuetak, Eliodororen lagunak, 1945ko irailaren 15ean, Caracasetik idatzitako eskutitz batean, (A.A. GE-265-1)

<sup>61</sup> Atal hau jorrazteko gehien bat "LA DELEGACION DEL GOBIERNO DE EUZKADI EN BAYO-NA" izenburupean Xabier Gortazarrek idatzitako txostena erabili dut.

<sup>62</sup> Baionako ordezkariak Euzkadiko Jaurlaritzak 1936ko urriaren 7an eratu eta handik egun gut-xira zabaldu zela. 1937ko abuztuaren erdi alderantz Euzkadiko Jaurlaritzak Xabier Gortazar izen-datu zuen Baionako ordezkaria. 1940ko maiatzaren 20an naziek Baionan sartu eta Espainiako Enbaxadaren eraginez Ordezkariak itxi zuten, Baiona aldean ziren hainbat euskaldun Gurseko konzentrazio zelaira eramanez. Horrela amaitu zen Baionako Ordezkariaren lanaren lehenengo atala. Bigarren atala, naziek alde egin eta gero hasi zen.

<sup>63</sup> Xabier Landaburuk Agirre Lendakariari 1944ko urriaren 2an bialdutako eskutitza. A.A. GE-468-1

Mexikon 1943an emanda ziren eta haien haria jarraituz, 1945eko martxoaren 31an, Baionan batu ziren EAJ, EAE, Alderdi Komunista, UGT, Euzko Mendigoixale Batza, Izquierda Republicana, CCSE, (Alderdi Sozialista), Partido Republicano Federal, CNT eta ELAko ordezkariak eta Baionako Hitzarmena izenarekin ezagutuko zen agiria sinatu zuten.

Hitzarmen honetan sinatu zuten alderdi politiko eta talde sindikalista guztiek, Euzkadiko Jaurlaritzaren aldeko adierazpena egin zuten. Honekin batera 1936ko urrian adostutako Estatutua oinarritzat hartuz, Euzkadiko Herriak, askatasun osoz hartutako erabakia errespetatzea eta Francoren kontra lanean batera jarraitzea erabakitzen zuten. Honekin batera eta 4. puntu bezala, etorkizunean behin Franco agintetik kendu eta gero, Euzkadiko Jaurlaritzak egin behar zuen lanean laguntzeko asmoz, Batzorde aholkularia eratzea adoztu zuten, Euzko Onuemale Batzordia sortuz.<sup>64</sup>

Garde Etayoren ustez, Batzorde honen eta Jaurlaritzaren arteko lotura lanak Eliodoro de la Torreren ardura ziren.<sup>65</sup>

Gaixotasunak ekarri zuen Eliodorok Euzko Onuemaile Batzordian egindako lanaren amaiera. 1946ko urtearen hasieran Ogasun Sailburuaren osasunak hoberantz egiten ez zuela ikusiz, Jesús María Leizaolak hartu zuen bere lekua Batzordean. Honela agertzen zen 1946ko urtarrilaren 7an ospatu zen batzarreko aktan.<sup>66</sup>

Euskaldunak batasun irudia ematen saiatzen baziren, berdin egin nahi zuten katalanek. Jeltzale eta katalanen arteko harremanak oso estuak izango ziren hilabete hauetan eta Eliodoro de la Torrek lan handia egin zuen harreman hauek indartzeko.

Baina ez ziren katalanak bakarrik izan, Eliodororekin batzartu zirenak. 1945eko otsailaren 14ean Gonzalez Aranau eta Garcia Larratxek lagunduta Juan Negrin, Errepublikako gobernu burua izandakoa ere batzartu zen Baionako ordezkarietan Eliodororekin.<sup>67</sup>

II Mundu Gerra amaitzear zegoen. Euzko Jaurlaritzako agintariak ezinbestekoa ikusten zuten euskaldunek parte har zezatela aliatuekin batera gerran. Asmoa gerra hasi zenetik zeukaten, baina aliatuek ez zuten nahi euskal gudariak denak batera batailoia osatzea. Ingalaterrarekin saiatu eta gero, azkenik, Frantziarregandik lortu zuten baimena, nahiz eta ez izan euskaldunak jarrita-

<sup>64</sup> A.A. EBB 83-1. Karpeta honetan agertzen dira Baionako Adierazpenaren kopia eta honen ondorioz sortutako Euzko Onuemale Batzordiarenekin akta edo agiri gehienak.

<sup>65</sup> GARDE ETAYO, "ELA, a traves de dos guerras. (1936 – 1946)". (367. orri).

<sup>66</sup> Euzko Onuemaile Batzordiak 1946ko urtarrilaren 7an ospatutako batzarren akta. A.A. EBB 83-1.

<sup>67</sup> "Visita del Sr. Negrin" Eliodoro de la Torrek egindako txosten-laburpena. A.A. GE-265-4.



ko baldintza osoak beteta. Eliodororen ardura izan zen, gudari euskaldunetz osotutako batailoia, gero Gernika Batailoia izenarekin ezagutuko zena, era-tzea.<sup>68</sup>

Gerra amaitu ondoren, irailaren 1ean emandako aginduaren arabera Frantzian gobernuak irailaren azkenetarako Frantzia ziren atzeritarrez osatutako talde armatu guztiak, desagertu behar zirela agindu zuen.

Irailaren 19an Eliodoro de la Torrek Euskal Brigadako kideei bisitaldia egin ez egoera azaldu zien eta eurentzat lana bilatzen hasi zen, batez ere basoko lanetan eta eraikuntzan. Eliodoro de la Torreraren ardurapean geratzen ziren eta eurentzako mantak, izarak eta abar lortzen saiatu zen.<sup>69</sup>

1946ko urtarrilaren azken egunetan, Eliodororen arduretariko bat Euskal Brigada osatzen zuten gudariak ziren eta bereziki honek Piriniotan bizi zuten egoera larria. Jadanik, hiltzorian zela, euregatik galdetu zion Eliodorok Primi Abadi, "begietan malkoak zituela"<sup>70</sup>.

1945ean Agirre Lendakariak Europara egin zuen bidaia, behin gerra amaitzear zegoela eta, berriro Euzkadiko Jaurlaritza antolatzeko asmotan. Martxoaren azken egunetan Parisera heldu eta bertan ziren euskaldunekin batzartu zen Agirre. Euren artean Eliodoro de la Torrek berak ere Lendakariarekin batzartzeko aukera aprobeixatu zuen.<sup>71</sup> Berriro ere irailaren lehenengo egunetan Parisera joan zen Eliodoro bertokoeekin batzartzera.<sup>72</sup> Oraindik urte honetako irailaren 18an bere anaiari idatzitako eskutitzan,<sup>73</sup> ez zion bere gaixoaren aipamenik egin eta non bizi ziren eta zeintzuk ziren bere bete beharrak baino ez zion azaltzen. Gauza berdina irakur dezakegu urriaren 16an bere laguna zen Fernando Unzetari idatzitako eskutitzan. Hemen ere, bere egoera pertsonalari buruz ezer gutxi kontatzen zuen Eliodorok, eta gehien bat bien ezagunen berri ematen zion Fernando Unzetari.<sup>74</sup>

<sup>68</sup> Koldo San Sebastian, Euzkadi 172 zkia. 1985eko urtarrilaren 10. 23 orr. Bestela, Gernika Batailoari buruzko datuak: LARRONDE, J. C.: Bidasoa Nº 4: El batallón Gernika. Gernika batallun euskalduna. Los combates de Pointe-de-Grave (Abril 1945). Ediciones Bidasoa. Baiona, 1995.

<sup>69</sup> Doroteo Ziaurritzek, José Antonio Agirrerri 1945eko azaroaren 5ean bidalitako eskutitza. A.A. EBB 76-2. Ikusitako agiriak ez du sinadurarik baina 1945eko abenduaren 13an Agirre Lendakariak Ziaurritzi igorritako erantzunagatik, dakigu goian aipatutako eskutitza Ziaurritzek idatzitakoa dela.

<sup>70</sup> Primi Abadi egindako elkarrizketak (Muskiz, 2001/6/4 eta 2002/4/29)

<sup>71</sup> Eliodoro de la Torrek Julio Aznarri 1945eko apirilaren 11an idatzitako eskutitza. A.A. S-766-5.

<sup>72</sup> Eliodoro de la Torrek Pantaleon Garairi 1945eko irailaren 18an idatzitako eskutitza. A.A. GE-523-2.

<sup>73</sup> Eliodoro de la Torrek Segismundo de la Torreri 1945eko irailaren 18an idatzitako eskutitza. A.A. GE-265-1

<sup>74</sup> Eliodoro de la Torrek Fernando Unzetari 1945eko urriaren 16an igorritako eskutitza. A.A. GE-265-1.

Abenduan, aholkularitzarako batzordeak 21ean egiten zuen batzarran Eliodorok ezin izan zuen parte hartu bere gaixotasunaren eraginez. 1945eko abenduko egun berean, hau da, 21ean, Doroteo Ziaurritzek José Antonio Agirreri bialdutako eskutitzan, Eliodororen osasunaz kezkatuta agertzen zen. Eskutitzan, Eliodorok gibleko minbizia izango zuen-edo esaten zion Lendakariari. Ziurtasunez jokatzeko, hiru sendagilek ikusi zutela zioen Doroteok, bera barne. Eskutitzan esaten zuenez, Eliodoro baikor zen eta ez zuen ezer susmatzen.<sup>75</sup> Karta berean, eskuz idatzitako ohartxo baten Doroteok, Agirreri ezer ez esateko eskatzen zion eurek ez baitzioten inori euren susmoen barririk eman.

Urtarrilerako Eliodororen egoerak beherakada nabarmena egin zuen. Berak ezin zuela Leizaolak hartu zuen parte bere ordezkari izateko batzordean.<sup>76</sup> Bidaia aprobetxatuz Eliodoro ikusi zuen Baionan. “Julio”ri (beharbada Julio Jaurigi) idatzitako eskutitzan Eliodorori buruzko berriak ez zirela batere onak zioen.

Eliodoro de la Torre urtarrilaren 28an hil zen. Nahiz eta azken egunetan saiatu Paristik medikuak ekartzen, hauek ez ziren garaiz heldu.<sup>77</sup> Bere hileta-elizkizunak Baionan egin ziren, urtarrilaren 30ean goizeko hamaiketan eta besteak beste Jesús María Leizaola, Lendakariordea, Agustín Alberro, ogasun saileko arduraduna, Xabier Landaburu, Josep Tarradellas, Kataluniako Jaurlaritzako ogasun sailburua, eta Mugika gotzaina izan ziren elizkizunetan. Otsailaren 16an, Parisen San Pedro de Chaillot elizaren kriptan goizeko 10etan beste elizkizun bat ospatu zen bere alde, Agirre Lendakaria bertan zela. Azkenik esan dezagun Bilboko Deustun ere bere alde egin zirela elizkizunak otsailaren 4an hain zuzen ere.

Baionako hilerrian lurperatu zuten Eliodoro, ezagun batzuk utzitako hilibian, Francotarrengandik aske zenean, Hego Euskal Herrira eroateko asmoz. Asmoa 1994ko abenduaren 16an beteko zen.<sup>78</sup>

<sup>75</sup> “Dionisio” (Doroteo Ziaurritzek) “Estenari” (Agirre Lendakariari) 1945eko abenduaren 21ean idatzitako eskutitza. A.A. EBB-205-3 (34).

<sup>76</sup> ELAko ordezkariak “Bloque Vasco” izenburupean, Batzorde Aholkulariak egindako batzarri buruz idatzitako laburpena. A.A. EBB-203-1.

<sup>77</sup> Eliodoro de la Torreren azken uneak eta bere bizia mantentzearen alde egindako saiakera guztiak ezagutzeko: Xabier Gortazarrek Agirre Lendakariari 1946ko urtarrilaren 30ean bialdutako eskutitza.

<sup>78</sup> Deia. 1994/12/17